

ORIGIN AND RELATIVES OF THE BASQUE LANGUAGE: REVIEW OF THE EVIDENCE (Trask).

0. Sarrera

Gaur egun ezin da Euskara hizkuntza bizi/hil baten ahaidea denik frogatu. Ahaiderik ez aurkitzearen arrazoia ez da saiakera kontua izan.

XVI. mendean Scaliger→ Euskara ama-H.

Poza→ Euskala Iberiar penintsula osoko lehen H.

XIX. mendean konparaketak ugaltu ziren. Hizkuntzalari profesional asko euskarara hurbildu direnean alde batera utzi dituzte hizkuntzalaritzaren metodoak. Akatsak:

-Bongo-Bongo hurbilketak: Euskara eta beste H baten arteko azaleko antzekotasunetan oinarritzen da, esanahiean antzekotasunen bat dutelarik. Era honetako lanak alde batera utzi behar dira, edozein Hatan aurki daitezke horrelako antzekotasunak.

-Euskara eta beste H baten arteko ahaidetasuna frogatzen saiatu diren gehienek **ez zekiten euskara**. Salbuespenak: Schuchardt, Lafon, Uhlenbeck eta Tovar. Gainontzekoek hiztegi elebidunekin eta bigarren mailako iturriekin egin dute lan. Edozein motatako hitzak erabili dituzte, hitz berriak, eremu txikietako aldaerak, neologismoak... Gainera batzuetan hitzak txarto hartu edo moztu.

-Aitzin Euskararen fonologia ez da kontuan hartu. Mitx. *Fónetica histórica vasca* ez da kontuan hartu. Duela 2000 urte ezinezkoak ziren hitzak erabili.

-Euskal hitzak modu arbitrarioan moztu dira ezezagunak diren aurrizki/atzizkiak sorraraziz.

-Salbuespen gutxi batzuekin, ikertzaileak ez dira antzekotasun sistematikoak aurkitzen saiatu.

1. Europear zaharra.

H IEak etorri aurretik European beste H batzuk zeuden. Ez daukagu hauen lekukotasun zuzenik. Aurreko Hen hiztegia, fonologia eta gramatika H IEarren bilakabide ezberdinetan aurki daitezkeela eztabaidatu dute adituek. Normalean bilakabide hauek H bakarraren subtratuaren arabera azaldu dira.

Badirudi euskarak H IEak etorri baino lehenagoko european nolako H zeuden ikertzeko balio duela. Erromatarrek etorri aurretik H asko egongo ziren penintsulan. Hizkuntzalari askok H erromantze askotan euskararen bidez azal daitezkeen hitzak aurkitu dituztela diote.

Hubschmid→ Euskararen bidez hitz aurreIEak aurkitu zituela esan zuen.

Arazoak: 1) p-, t-, k- #_ }
 2) nt } AEn ezinezkoak euskaraz
 3) -m }

Venneman → Ibaietan euskal hitzak. Ibaien izenen egitura: erroa + determinatzailea (aukeran) + a. Toponimo horietatik Europer Zaharraren sistema fonologikoa atera zuen. Mitxelenarenarekin alderatuz ezberdintasun handiak: 1) m 2) ahostun/ahoskabe sistema. Vennemanek bi ezuagarri azpimarratu zituen: 1) #_-a 2) _#a-. Ateratako ondorioa: Europear Zaharra euskararen antzinako egoera da.

Arazoak: -Artikulu berankorra da.

-Europear Zaharrerako proposatutako erroek eta atz.-ek ez dute euskararen antzik.

-Proposatutako erro asko ezinezkoak AEn #_horsk.

Vennemanek Europako herri askoren izenak euskararen bidez azaldu. Munich = muino. (AEn ezinezkoa *bunno)

2. Indo-Europearra.

Oso gutxi dira IE-ko maileguak izan daitezkeenak. IEko maileguak ez egotea arraroa da. Mitx. → antzinako IEko maileguak latin edo erromantzeko maileguek ordezkatu edo latinaren eraginagatik eraldatu eta ezin ezagutu. Zelta rix → *errigV (*errege* zeltatik hartu ahal izan genuen). Gramatikan ere ez dago IEn ezaugarririk.

Tovar → Euskarak eta protoIEk ezaugarri batzuk partekatzen dituztela frogatzeko saio bat egin zuen. -ko protoIEreko berreraiki da eta euskarazko atzizkiaren portaera bera du. Atzizki hau IEko adar guztietan dago (Hittie salbuespena).

Araza: Euskara eta protoIE noizbait harremanetan egon izana eskatzen du eta ezin da frogatu.

Guisasolak euskarak eta IEk partekatzen dituzten ezaugarriekin liburu bat egin zuen. Erromantze eta euskararen artean kognatuak aurkitu omen zituen. Euskara latina etorri zenetik etengabeko ukipena izan du H erromantzeekin horregatik daude etorki bereko hitzak ez ahaidetasunagatik.

3. Iberiera.

Iberieraren lekukotasunak harrietan, txanponetan... testu hauek euskara hitz egiten ez zen lekuetan agertu arren batzuek euskara dela uste dute. Larramendik lehen aldiz esan zuen iberiera euskararen lehengo forma zela. Iberiera dezifratu arte ezin izango da ikertu. Gómez Morenok irakurtzea lortu. Tovalek eta Mitx.k biak ikertu eta antzekotasunak aurkitu zituzten. Antzekotasun hauek azalekoak dira ezin da ahaidetasunik frogatu eta iberierazko testuek interpretaziorik gabe jarraitzen dute.

Román del Cerro iberiera euskararen arabera azaltzen saiatu, morfemak txarto zatitu...

4. Minoera, Etruskoa, Piktoera eta Sumeriera.

Europako H ez dezifratu nagusiak dira. Hizkuntzalari ezberdinak Minoera, Etruskoa eta Piktoera euskararen bitartez irakurtzen saiatu dira.

Sumerierari dagokionez, badago euskara eta Sumeriera lotzen dituen liburu bat (Trasken ustez fantasia hutsezkoa). Löpelmann-ek idatzi zuen liburu hori eta Britainiako liburutegian dago, Britainia Handiko hizkuntzalari historiko gehienek irakurriko zuten.

Traskek dioenez ezin da euskara Sumerierarekin lotu beste arrazoi batzuen artean azken honek erro monosilabikoa duelako (Lakarraren lanak baino lehenago).

5.Kaukasiera

Antzekotasun tipologikoengatik konparatu izan dira. Bi H hauen arteko konparaketak nahiko ondo egin dira. Schuchardt, Uhlenbech, Trombetti, Mar.. izan dira horietako batzuk. Lan guzti hauek Mitx.-ren AEko fonologia sistemari buruzko lana baino lehenagokoak dira. Lafonek antzekotasun sistematikoak aurkitu zituen euskara eta georgieraren artean (-tzu, -(e)n).

Mitx.-k euskara-kaukasiera konparatzeak ezertarako balio ez zuela esan zuen. Bi hamarkadetan ez zen bi H hauen arteko eraketarik egin. Chirikba-k berriro bi H hauek konparatzen hasi zen. 90 kognatu proposatu zituen (neologismoak, hitz berriak...) ez zuen antzekotasun sistematikorik aurkitu.

6. Akitaniera

Akitanierako lekukotasunak 400 izen propio eta 70 jainko izen dira. Mitx.-k eta gero Gorrotxategik ondorioak:

-Akitanierazko elementu batzuk euskararenak dira eta beste batzuk euskara bezala identifikatu daitezke.

-Aerako berreraikitako forma batzuen berdinak aurkitu dira.

-Akitanieraren fonologia sistema euskararako berreraikitako berdina da.

-Akitanierazko izenak euskal hitzak bezala moztu daitezke.

Akitaniera euskararen arbasoa izan daitekeela dirudi.

7. Afrikako Hizkuntzak

Ideia hau oso zaharra da. Harreman hau proposatu zuen lehena Schuchardt izan zen. Konparaketa honen arrazoa iberiera eta euskara H bera zirela pentsatetik dator. Batez ere Bereber Harekin konparatu zuen. Arraroa da: 1) Euskara aditz azkena eta aglutinatzailea eta Berber aditz lehena eta inflezioa 2) Berberra familia Afro-Asiarikoaren adarra da.

Mukarovsky → berriro euskera eta bereberra konparatu → antzekotasun sistematikorik ez.

8. Euskara eta Makrofamiliak

Makrofamiliari dagokienez, euskarak ez du ikertzaileen arreta bereganatu. Makrofamilia denekaukasoarraren barruan sartu izan da (mendebaldeko Europatik ekialdeko Asia, Siberia, Kanada eta Estatu Batuetako hegomendebaldeko Hk). Oraindik ez dago partaideei buruzko proposamen kanonikorik baina badirudi beste superfamilia guztietako hondakinekin egindako familia dela.

Bengtsonnek eta Ruhlenek euskara denekaukasoar familian “ziurtasunez” sar daitekeela diote. Arazoak: argudioen artean Chirikba-k ipar kaukasiera eta euskara ahaidetzeko egin zuen alferrikako saialdia aipatzen dute. Hitzak arbitrarioki eta oker zatitu eta konparaziorako existitzen ez diren “erroak” erabiltzen dituzte, maileguak, elementu fonosinbolikoak, haur-hizkerako hitzak...

9.Ondorioak

Akitanieraren aztarnen bidez akitaniera euskararen antzinako forma dela proposatu dute hainbat adituk. Euskara bizirik dirauen mendebaldeko Europako azken

H aurreIE dela diote. Euskara beste edozein Hrekin ahaidetzeko saiakerak ez dira emankorrek izan.